

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

LEHENDAKARITZA

1190

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 27koa, Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari nagusiarena, zeinaren bidez iragartzen baita Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzako Kanpo-harremanetarako Teknikari Espezialista lanpostua (511291 kodea, 7 dotazioa) izendapen askeko sistema bidez hornitzeko deialdi publikoa.

Kanpo-harremanetarako Teknikari Espezialista lanpostu hau hutsik dagoenez –511291 kodea, 7 dotazioa– Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzan, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 94.9. artikuluan xedatutakoari jarraituz eta Enplegu Publikoko Zuzendaritzak aldeko txostena eman duenez, eranskinean azaltzen den lanpostua izendapen askeko sistema erabiliz hornitzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du sail honek. Hona hemen deialdiaren

OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako karrerako funtzionarioek eta EAeko administrazio orokorrek lotuta dauden zuzenbide pribatuko ente publikoetako karrerako funtzionarioek, lanpostu-zerrendan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte (eranskinean zehaztuta daude).

Aipatutako langileek edozein administrazio-egoeratan egonda har dezakete parte deialdian, egoera hauetan izan ezik:

– Eginkizun-gabetze irmoa ezarrita duten funtzionarioek ezin izango dute parte hartu, egoera horrek dirauen bitartean.

– Norberaren kontuetarako edo familia elkartzeko borondatezko eszedentzian dauden langileek ezin izango dute parte hartu, ez badute bete eszedentzian egon beharreko gutxieneko denbora (2 urte).

Bigarrena.– Eskabideak.

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik 15 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira parte hartzeko eskabideak.

EAEko Administrazio Orokorrean eta haren organismo publikoetan jardunean dauden karrerako funtzionarioek EIZU enplegatua atariaren bidez egin ditzakete eskabideak. Jakina bidez eta Internet bidez sar daiteke atari horretara, helbide honetatik: Funtzio Publikoa - Eusko Jaurlaritza - Euskadi.eus

Gainerako izangaiek erregistro elektronikoaren bidez bidaliko dituzte eskabideak, Lehendakari-tzako Zerbitzu Zuzendaritzara.

Hirugarrena.– Betekizunak eta merezimenduak.

Honen eranskinean ezartzen dira lanpostu-zerrendan Kanpo-harremanetarako Teknikari Espezialista lanpostua (511291 kodea, 7 dotazioa) betetzeko eskatzen diren baldintzak.

Parte hartzeko eskabideari «curriculum vitae» erantsiko zaio, eta, hor, datu pertsonalak eta zein talde, azpitalde edo kidegotakoa den zehazteaz gain, beste hauek ere jasoko dira:

a) Tituluak.

b) Administrazio eta sektore publikoan eta, hala badagokio, enpresa pribatuan betetako lanpostuak, lehiatzen den lanpostuaren antzeko funtzioak dituztenak.

c) Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna.

d) Jasotako eta/edo emandako prestakuntza-ikastaroak.

e) Hizkuntza-gaitasunak.

f) Eskatutako lanpostuari esleitutako funtzio eta zereginekin lotuta, jakinaraztea egoki jotzen diren bestelako merezimendu eta gaitasun guztiak.

Eskabidearekin batera, deialdian eskatzen diren betekizunen eta alegatutako merezimenduen egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte izangaiak, baldin eta EAEko administrazio orokorraren Langileen Erregistroan ez badaude.

Izangaia deitutako lanpostuaren funtzioetara ongi egokitzen dela bermatzeko, deialdia egin duen organoari aukera ematen zaio izangaiak alegatu dituen merezimenduak egiaztatzeko egoki jotzen dituen bitartekoak erabil ditzan; elkarriketa pertsonala edo proba egin dezake horretarako, edo Giza Baliabideen Zerbitzuko organo teknikoaren txostenak eskatu.

Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den datan bete behar dira eskatutako betekizunak, eta esleitutako lanpostuez jabetu arte eutsi behar zaie. Parte hartzeko baldintzak betetzen jarraitzen ez duten parte-hartzaileak ezin izango dira jabetu esleitutako lanpostuaz.

Laugarrena.– Ebazpena.

Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari nagusiaren ebazpen bidez ebatziko da deialdi hau, gehienez ere hiru hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Ebazpen hori EHAA-n argitaratu beharko da.

Lanpostua lortzen duen pertsonak esleipen-ebazpenean ezarritako datan jabetu beharko du lanpostuaz, eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko du.

Ebazpen hori arrazoitzeko, kontuan hartuko da izangaiak deialdian eskatzen diren baldintzak eta zehaztapenak bete dituela, izendapena egiteko eskumena dagoela, eta lanpostuari buruz monografian ezarritako eginkizunak eta zereginak betetzeko egokia dela. Horretarako, gainerako izangaiekin (baldin badaude) alderatuko dira merezimenduak (eta, hala badagokio, elkarriketa-aren edo probaren emaitza).

Deialdia hutsik geratu dela deklaratu daiteke, baldin eta izangaietako batek ere ez baditu betetzen lanpostuaren baldintzak edo izangaietako bat ere ezin bada egokitzen jo, deitutako lanpostua betetzeko behar beste merezimendu eta gaitasun ez dituelako.

2025eko martxoaren 14a, ostirala

Bosgarrena.– Errekurtsoak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 27a.

Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari nagusia,
MIKEL IRIONDO BILBAO.

2025eko martxoaren 14a, ostirala

ERANSKINA

Deitutako lanpostua: Kanpo-harremanetarako Teknikari Espezialista.

Kodea: 511291

Dotazioa: 7

Kidegoa eta eskala: A01EU=Administrazioko Goi-mailako Kidegoa – EGA101=Goi-mailako Administrazioko Esk.

Lanpostu-mailako osagarria: 28

Berariazko osagarria: I-A

Kokapena: Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza. Lehendakaritza.

Herria: Vitoria-Gasteiz.

Hizkuntza-eskakizuna: 3

Derrigortasun-data: 1999-10-31

Lanpostu-zerrendako betekizunak edo berariazko ezagutzak:

- Hizkuntza-eskakizuna: arestian aipatutakoa.
- Ingelesa edo frantsesa B1.
- Unibertsitate edo administrazio publiko batek nazioarteko zuzenbidearekin eta kanpo-ekintzarekin lotutako gaietan egiaztatutako gutxienez 180 orduko graduondokoa.